

ESKUORRIA: HH 1NGO ZIKLOA

IRAKASLE BERRIARENTZAT ESKUORRIA

Orereta Ikastolako HHn, hIZAn proiektuan oinarritutako hezkuntza eskaintzen dugu.

ZER DA hIZAN PROIEKTUA?

hIZAN HH proiektua pertsonon ongizatea helburu duen proiektua da, haurra gaitasunez beteriko pertsona dela oinarri hartuta eta munduaz ikasteko berezko gaitasuna duela sinetsita.

Proiektua aurrera eraman ahal izateko familiak, ikastola komunitateak antolaketa arkitektonikoak, materialak eta batez ere, berdinekiko harremanak hartuko ditugu kontuan.

Haurren senek berebiziko garrantzia dute proiektuan, horietan oinarrituta egin baitira hausnarketa eta aldaketa guztiak.

Gure proiektua sakonago ezagutzeko hona hemen lotura (dokumentua bukatutakoan hemen txertatu).

ERAIKINAREN ANTOLAKETA

- HE Esmalteriako beheko solairua.
- HH2 Esmalteriako goiko solairua, eskubiko aldea.
- Beheko solairuan aldagela. (Aldatzeko arropa, oinetakoak, mantala).

TUTOREAREN FUNTZIOAK

- Ikasleak orientatu eta gidatzea.
- Irakasle edo tutore taldeak landutako tutoretza planak garatzea.
- Bere ardurapean dauden eta premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko curriculum egokitzapenak eta heziketa-lan bereziak koordinatzea, Heziketa Bereziko irakasleen laguntzaz.
- Ikasleei taldean eta eskola-bizitzaren osotasunean integratzen laguntzea eta ikasle horiengan parte hartzeko gogoia piztea.
- Bere etapako tutore eta irakasleekin koordinatzea.
- Ikasle eta irakasleen arteko harremanak hobetzeko eta arazoak konpontzeko, bitartekari izatea.
- Bere ardurapean dagoen taldeko ebaluazio-prozesua koordinatzea eta, gainerako irakasleen informazioa bilduz, bere ikasleen promozioa erabakitzea.
- Familiekin etengabeko komunikazioa bermatzea.
- Urtean behin ikasleen hezkuntza prozesuaz gurasoak informatzea. Honez gain, tutoreak zein gurasoek beharrezkoa ikus dezaketen guztiekin.

- Arazoak aurreikus daitezkeenean edota gertatu direnean, gurasoekin elkarrizketatzea, konponbidean jarriz.
- Zuzendariak eskatzen dizkion eginkizunetan laguntza eskaintzea. Zuzendaritzaren kolaboratzaile leiala izatea bere esparruko arloetan.
- Ikasleen informea egitea.

FUNTZIONAMENDUA

Ikasleak gurasoekin sartuko dira gelaraino. Aurrez gurasoekin, takiletan edo zintzilikairuetan oinetakoak aldatuko dituzte eta berokiak utziko dituzte bertan (HH2ko haurren kasuan, eguerdian etxera doazenek, oinetakoak eta berokiak gelara igoko dituzte).

HAUR ESKOLA

07:30 - 09:30 sarrera malgua. Familiak 2 ordu horietan zehar etorriko dira, horrela, irakasleek harrera pertsonalizatua egiteko aukera izango dute.

09:40 - 10:00 HIZKUNTZAren lanketa:

- Errutinak.
- Ipuina, jolas abestiak, tradizio kantak.
- Hamaiketakoa.

10:00 - 11:00 Zirkulazioa librea:

- Astelehena: Zirkulazio libre / jolasak.
- Asteartea: Altxorraren otarra eta jolas heuristikoa.
- Asteazkena: Psikomotrizitatea.
- Osteguna: Zirkulazio librea / jolasak.
- Ostirala: Zirkulazio librea / jolasak.

11:00 Sarrera.

11:00 - 12:30 Bazkal ordua. Txikiak hasten dira eta 11:30 aldera handienak mahaietan.

12:30 Siesta eta etxera doazenen prestaketak. Egunerokoak bete.

13:00 - 13:15 Irteera.

14:30 - 15:30 Irteera malgua. Haurrak esnatzen doazen heinean prestatzen joan eta jolas librea aritzen dira.

15:30 Meriendak.

16:15 - 17:00 Azken irteerak.

HH2

09:00 - 09:30 bitartean Sarrera malgua dago. Ikasleak 30min horietan gelara sartzen joango dira, horrela, irakasleek harrera pertsonalizatua egiteko aukera izango dute.

09:30-10:30 Zirkulazio librea.

Helburua: Haurrak modu autonomoan mugitzea, beraien nahi eta beharrak asetzeko prestaturiko espazioan zehar. Irakasleek haurren garapen momentuari eta adinari dagozkion senen arabera prestatuko eta egokituko dituzte materiala eta espazioa.

Irakaslearen rola: Bidelagun eta behatzailea.

Espazioak:

- Esperimentazioa.
- Sinbolikoa.
- Eraiketak.
- Plastika / artea.

Gela guztietan eguneko gainontzeko momentuetan erabili dezaketen materiala dute eskura: Trena, panpinak, baloiak, ibilgailuak, animaliak, ipuinak, ...

Astean behin Psikomotrizitate saioa izango dute Psikomotrizitate gelan (jolasleku bukaeran dago).

10:30 - 11:00 Jolaslekua.

Ondoren, HIZKUNTZAREN lanketa egiten dugu tutore bakoitzak bere haur taldearekin:

- Errutinak.
- Ipuina, jolas abestiak, tradizio kantak.
- Hamaiketakoa (hurrek banatzen dute).

11:30 - 12:00 Prestaketa lanak. Ura, komuna, pardelak, mantalak, etxeke zapatilak, berokiak.

12:10 Jangelakoak jangelara eta etxekeak etxera.

13:00 inguru arte Jangelan. Tutore bakoitzak bere haur taldearekin bazkaltzen du. Amaitutakoan denak elkarrekin geletara. Batzuk siesta bestiak etxera.

15:15 - 16:30 Irteerak.